



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Aldundiak adierazo dauenez, "%100ean" betetan ditu Batzar Nagusien arauzko akordio ez lotesleak

Bilbon, 2013ko abenduaren 11n

Unai Rementeria Lehendakartzako diputatuak Batzar Nagusietan egindako agerraldian adierazo dauenez, 2013ko bigarren hiruhilekotik Batzar Nagusietan onartu diran ekimenak “%100ean” bete dira. Aldundiko arduraduna Iraskunde Batzordearen aurrera joan da, aurtengo apirilaren 24tik aurrera Bizkaiko Batzarrek onartutako ekimenen betete mailaren barri emoteko. Egun horretan osoko bilkurak onartu eban Arauz Besteko Proposamenak eskaerea egiten eutsan Foru Aldundiari, aitatutakoa bete daian, eta proposamen horrek ia talde guztien aldeko eretxia jaso eban. EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeek aldeko botoa emon eben, eta EH-Bildu abstenidu egin zan.

Lehendakaritza sailak egin dauen eta aste honetan bertan Batzarrei eta Batzarretako taldeei bialdu jaken txostenean sailez-sail dagoz zehaztuta egun horretatik joan dan irailera arte bete izan diran proposamen guztiak. Arauz Besteko Proposamen horreek, printzipio adierazpenak, erreferentziak, edo Eusko Jaurlaritzari, Aldundiari berari, Bizkaiko Udalei, Ur Partzuergoari... egindako eskaerak, edo berrikuspenei, azterketa planei, mozinoei buruzko erreferentziak, Batzarretako taldeek egindako eta izaera politikoa daukien adierazpenak... dira, beste batzuen artean.

Oposizino taldeek zalantza batzuk adierazo dabez, txostena urtarrilaren 1etik aurrera kontuan hartu beharko litzatekelako eta proposamen batzuk bete diranik oso argi ikusten ez dabelako. PP taldeak, adibidez, adierazo dau terrorismoaren biktimei Bizkaiko Argiak aintzatespena emoteko aurkeztu eban ekimena ez dala “aurreikusitako moduan” bete. Rementeria eretxiz, barriz, bete egin zan, eta Aldundiari bialdutako testuan eskatzen zana “baino gehiago” egin zan.

EH Bildu taldeari jagokonez, benetan indarrean jarri izanaren inguruan “zalantzak” sortzen dituen hamabi bat proposamen inguru aitatu ditu. Horreen artean, Espainiako Gobernuari egindako eskaerea dago, toki administrazioaren erreformarako legea baztertzeko eskatzeko, eta Aldundiaren Laguntza izeneko informazio zerbitzuaren bitartez etxe barik geratu diran pertsonentzako informazio sistema ezarteko beste bat. Lehenengoari jagokonez, foru diputatuak baieztu dau Aldundiak erantzun bateratua emon ebala Eusko Jaurlaritzagaz eta Eudelegaz. Euren etxeetatik kanporatutako familientzako etxebizitza parkeari jagokonez, Rementeriak aurreratu dau “hiru pertsona” izan dirala Laguntza zerbitzura joan diranak azken hilebeteetan, foru etxebizitzaren alokairu txikia eskuratzeko erakundeak eskatzen dituan betekizunei buruzko informazio eske.

Batzarretako Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldearen ustez, Aldundiak proposamen ez lotesleak bete izanak “balioa emoten deutso Batzar Nagusietan egiten dan beharrari”, derrigorrez bete beharreko ekimenak ez diran arren, eta Aldundiaren “gardentasuna” erakusten dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

LAN KONTRATAZINOETARAKO ARAUDI BARRIA

Aldundiko Bozeroalea bere ekimenez agertu da Batzordearen aurrean, Araudi barri bati buruzko informazioa emoteko. Araudi horrek lan baldintzak eta gizarte arloko neurriak eusteko erespideak emoten ditu, foru sektore publikoan, Aldundian zein bere esku dagozan erakundeetan, kontratatako orduan aurrera eroaten diran prozeduretan apliketako. Xedapen horren helburua beharginen lan baldintzak okerrera ez egitea da, indarrean dagozan kontratuetan eta etorkizuneko kontratazino prozeduretan ezarri daitezkean klausuletan.

Aldundiak Araudi barriagaz bilatzen dauan helburua, lan arloko erreformaren ondorioz eta, batez be, Bizkaiko foru sektore publikoan lan egiten daberen enpresa kontratisten hitzarmenen larregizko jardurea amaitzearen ondorioz, lan baldintzen aldaketek sor daikiezan eraginak arintzea da. Unai Rementeriak adierazo dauenez, neurri horreen bitartez Foru Erakundeak bilatzen dauena lan arloan gatazka gitxiago egotea da.

Foru Aldundiaren araudi horretan, gai sentsibleakaz erlazionautako gizarte arloko hainbat klausula barri jasoten dira, honeek, beste batzuen artean: laneko arriskuen prebentzinoa; herri lanetako segurtasuna eta higieena; langabezia jasaten daberen taldeen artean enplegua sustatzea, gizarte bazterkeriarako arriskuan dagozan pertsonen alde behar egiten daberen erakundeen azpi-kontratazinoaren bitartez; eta baita genero berdintasuna eta euskeraren erabilera be.

Araudia, hemendik aurrera sinatzen diran kontratuen administrazino klausulen pleguetan sartuko da, baina kontratazino organua izango da klausula horreen egokitzapenerako erespidea markauko dauena. Kontratatuek araudi hori derrigorrez bete beharko dabe. Holan ez bada, Aldundiak zehapenak aplikauko ditu, zehapen ekonomikotik hasi eta kontratua balio barik itxi arte, ez beteteen larritasuna kontuan izanda.

Orokorrean, Batzarretako taldeek ondo hartu dabe Araudia, EAJ-PNV-k, PSE-k eta EH Bilduk batez be, Rajoyren Gobernuak martxan jarritako Lan Erreformaren eraginak “arintzeko” modua izan daitekeala uste dabelako. PSE eta PP taldeek urritasuna daukien pertsonentzako plazak erreserbetako neurriak falta dirala esan dabe. EH Bilduren eretziz, Foru Gobernuak politika eta gizarte arloetako eragileakaz kontrastau barik sortu da araua, eta, ganera, zalantzan jarri ditu zehapenen aplikazinoa eta Araudia betetearen kontrola.

Beste alde batetik, PSE-EE taldeak eskatuta, Rementeriak baieztu egin dau Aldundiak aurrera jarraitzen dauela “Foralen” kopurua “7 eta 10 pertsona artean” handitzeko asmoagaz. Foralak, une honetan Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailaren esku dagoan lurraldeko polizia da, eta Aldundiko kargu politikoak eta eraikinak babesteaz arduratzen dira.

IURBENOR KASUA

Beste alde batetik, Jose Luis Bilbao Ahaldun Nagusia EH Bildu taldeak eskatuta agertu da Batzordearen aurrean, “Iurbenor kasuagaz” erlazionautako hainbat gai argitzeko. Foru



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Aldundiko arduradun nagusiak beren beregi ezeztu dau ezelango akordiorik egon danik Iurbenor enpreseagaz, edo Jabyer Fernándezegaz, enpresa horretako arduradunagaz ezelango konpromisorik hartu danik. Habiditegaz sinatutako hitzarmenari jagokonez, Bilbaok ez dau sakondu gura izan Aldundiak etxe modularren proiektuaren arduradunakaz izandako harremanean. Koalizino abertzaleari, Batzarren aurrean egin eban aurreko agerraldiaren saio-egunkarira jotzeko gonbidapena egin deutso, arlo horretan “ez dalako ezelango barrikuntzarik egon”.

Foru Aldundiko arduradun nagusiak ez ditu balorau gura izan oraindino epaia emon barik dagoan epaiketan Fernándezek egindako salaketak. Gogoratu dauenez, Aldundia partaide da Ogasun Publikoaren kontrako delitua eta kaudimen falta zigorgarri delitua aztertuko dituan auzi horretan, “interes publikoaren defentsan”, iruzur fiskalaren kontra burruka egiteko eta BEZ zerga dala eta ordaindu barik dagozan 43 milioi euroak berreskuratu ahal izateko. Itxuraz haserre puntu bategaz, Ahaldun Nagusiak EH Bildu taldearen jarrera salatatu dau, talde horrek, Fernándezek Aldundiaren aldetik “mesedeko tratua” jaso ebala iradoki dauelako. “Harria bota eta eskua ezkutau”. “Ez nahastu hitzarmena eta mesedeko tratua”, erantzun dau.

EH Bilduren eretxiz, Aldundia, unerren batean, “arte eta parte” izan da, eta Puerta de Bilbao edo Habidite kasuetan, Jabyer Fernández buru dauen enpresa taldearen bi proiektu nagusietan, interes pribaduen aldeko jarrera erakutsi izan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación asegura que cumple "al 100%" los acuerdos normativos no vinculantes de las Juntas Generales

Bilbao, a 11 de diciembre de 2013

El diputado de Presidencia, Unai Rementeria, ha asegurado en una comparecencia en las Juntas Generales que la Diputación ha cumplido “al 100%” las distintas iniciativas parlamentarias aprobadas en las Juntas Generales desde el segundo trimestre de 2013. El responsable foral acudió a la Comisión Institucional para dar cuenta del grado de cumplimiento de las iniciativas acordadas por la Cámara Vizcaína a partir del 24 de abril de este año, fecha en la que salió adelante una Proposición No de Norma en el pleno que instaba a la Institución foral a cumplir con esta prerrogativa y que obtuvo un apoyo casi unánime. PNV, PSE-EE y PP votaron a favor de la propuesta en aquella sesión, y EH-Bildu se abstuvo.

En el informe elaborado por el departamento de Presidencia y remitido a la Cámara y a los grupos junteros esta misma semana, se ordenan por departamentos las iniciativas parlamentaria que han sido cumplidas entre esa fecha y el pasado mes de septiembre. Se trata de proposiciones no de norma que constituyen una declaración de principios, referencias o instancias al Gobierno Vasco, a la propia Diputación, a Ayuntamientos vizcaínos, al Consorcio de Aguas, u otro tipo de peticiones que hacen referencia a revisiones o planes de estudio, mociones, declaraciones de los grupos junteros de contenidos políticos o una declaración de principios, entre otras.

Los grupos junteros de la oposición han mostrado algunas dudas sobre si el informe no tendría que haberse considerado desde el 1 de enero y sobre el cumplimiento de algunas proposiciones. Por ejemplo, el PP considera que su iniciativa para conceder a las víctimas del terrorismo la distinción de Ilustres de Bizkaia no se ha cumplido "como estaba prevista". Para Rementeria, sin embargo, su cumplimiento fue “más allá” de lo que se pedía en el texto remitido a la Diputación.

Por su parte, EH Bildu ha citado una docena de propuestas emanadas de las Juntas que ofrecen “dudas” sobre su implantación efectiva. Entre ellas, dos a que afectan al departamento que dirige Rementeria: una instancia realizada al Gobierno español para que retirara la Ley de reforma de la administración local y otra para implantar un sistema de información para las personas desahuciadas a través del servicio de información foral Laguntza. En cuanto a la primera, el diputado foral ha confirmado que la Diputación dio una respuesta conjunta con Gobierno Vasco y Eudel. En lo referente al parque de viviendas para familias desahuciadas, Rementeria ha revelado que “tres personas” se han dirigido a Laguntza en los últimos meses para informarse de los requisitos exigidos por el ente para optar al alquiler reducido de vivienda foral.

Para el grupo juntero Nationalistas Vascos (PNV), el cumplimiento de las proposiciones no vinculantes por parte del Ejecutivo “pone en valor el trabajo que se hace desde las Juntas Generales”, aún siendo iniciativas que no son de obligado cumplimiento, y es un “signo de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

transparencia” por parte de la Diputación que tendrá que presentar un informe anual al parlamento vizcaíno.

NUEVA INSTRUCCIÓN PARA CONTRATACIONES FORALES

El Portavoz de la Diputación ha comparecido, también a iniciativa propia, para informar sobre una nueva Instrucción por la que se establecen criterios sobre el mantenimiento de las condiciones de trabajo y medidas de carácter social para su aplicación en los procedimientos de contratación del sector público foral, tanto en lo que concierne a la Diputación como a sus entidades dependientes. Esta disposición tiene como fin vigilar que no se mermen las condiciones laborales de los trabajadores, tanto en los contratos en vigor como en las cláusulas que podrán aplicarse en futuros procedimientos de contratación.

La Diputación con esta nueva Instrucción tiene como objetivo mitigar los efectos que pueden generar la modificación de las condiciones de trabajo como consecuencia de la reforma laboral y especialmente, por la finalización de la ultraactividad de los convenios aplicables a las empresas contratistas del sector público foral de Bizkaia. Unai Rementeria ha manifestado que con estas medidas la Institución foral persigue evitar una mayor conflictividad en el ámbito laboral.

Esta normativa de la Diputación incluye una nueva batería de cláusulas de carácter social relacionadas con ciertas materias sensibles, como es la prevención de riesgos laborales, la seguridad e higiene en la obras públicas; la promoción del empleo en colectivos afectados por el desempleo y la subcontratación con entidades que trabajan a favor de la inserción de personas en riesgo de exclusión, además de la igualdad de género o el uso del euskera.

La Instrucción se incluirá en los pliegos de cláusulas administrativas de futuros contratos aunque será el órgano de contratación el que marque el criterio de adecuación de las cláusulas. Los contratistas estarán obligados a cumplir esta instrucción. De no ser así, la Diputación aplicará penalizaciones que van desde la sanción económica hasta la resolución del contrato, en función de la gravedad de los incumplimientos.

En general, la Instrucción ha sido bien acogida por los grupos junteros, en especial por PNV, PSE y EH Bildu que ven en ella una forma de “paliar” los efectos de la Reforma Laboral del Gobierno de Rajoy. PSE y PP han echado en falta medidas para reservar plazas para personas con discapacidad. Para EH Bildu, la norma nace sin que el Gobierno foral haya realizado un contraste con los agentes políticos y sociales, además de poner en duda la aplicación de las sanciones y el control del cumplimiento de la Instrucción.

Por otro lado, a petición del PSE-EE, Rementeria ha confirmado que la Diputación mantiene la necesidad de ampliar los efectivos de “Forales” – la policía territorial dependiente actualmente de la consejería de Seguridad del Gobierno Vasco- “entre 7 y 10 personas” para proteger a cargos políticos y edificios forales.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CASO IURBENOR

Por otro lado, el Diputado General, José Luis Bilbao, ha comparecido a petición de EH Bildu para aclarar algunos asuntos relacionados con el “caso Iurbenor”. El máximo responsable del Gobierno foral ha negado taxativamente que haya existido acuerdo con la empresa Iurbenor o algún compromiso adquirido con el responsable de esta empresa, Jabyer Fernández. En cuanto al convenio con Habidite, Bilbao no ha querido incidir en la relación de la Diputación con los responsables del proyecto de casas modulares. Ha invitado a la coalición abertzale a que acudan al diario de sesiones de su comparecencia anterior en las Juntas, ya que “no ha habido novedades” en este sentido.

El máximo responsable del Ejecutivo foral no ha querido entrar a valorar las acusaciones vertidas por Fernández en el juicio que está pendiente de sentencia. Ha recordado que la Diputación se ha personado en esta causa por un delito contra la Hacienda pública y por un delito de insolvencia punible, “en defensa del interés público” y con la intención de perseguir el fraude fiscal y de recuperar los 43 millones de euros en concepto de IVA no abonado. Con aparente malestar, el Diputado General ha denunciado la actitud de EH Bildu por insinuar que Fernández recibió un “trato de favor” por parte de la Diputación. “Lanzan la piedra y esconden la mano”. “No mezcle el convenio con el trato de favor”, ha respondido.

Según EH Bildu, la Diputación ha sido en algún momento “arte y parte” y ha actuado en favor de intereses privados en los casos Puerta de Bilbao o Habidite, los dos proyectos estrella del grupo empresarial encabezados por Jabyer Fernández.